

# Sarako Joanes Etxeberri'ren

## “Eskual-Herriko Gazteriari”

Etxeberri Sara'koaren berri guztiok dakigu. Eraberritzera etorri zen oraintsu arte deus gutxi landu dugun sail batean: irakaskintzan, obeto esan, euskeraren bidez bere ustez egin bear zen Euskal-erriko irakaskintzan.

Ba dakigu ere zer ondoren izan zuten bere ahalegiñak. Ez zuten antziñadanik zetorren nagikeria baztertu eta idatzi zituenak ere, geienbat, itzalpean gelditu ziren, Urkixo'k esku-izkribua arkitu eta liburu eder bat argitara zuen artean: *Obras vascongadas del doctor labortano Joannes d'Etcheberri (1712)*.

Bilduma orretan dago idazlan au, izenez oraindik orain Ramiro Ledesma'k egin zuen “itzaldia” gogora dakarrena. Izanez, ordea, ikusiko duzutenez, Etxeberri'ren deia bestetarako da: gure orduko gazteria, berak dion bezalatsu, Marte zakarrarengandik baztertu eta Minerva'ren lan atsegiñetara erakartzeko egiña.

Badirudi, beraz, ez dugula muga txarra orain, ikasgosea geitzen eta larritzen asi zaigun une onetan, Etxeberri'ren itzak, zeuden zeudenean idazkera aldatzearekin, onera ekartzea, ausnaur egin dezagun apurtxo batez zertan giñan, aitzin gidari aren denboran, eta zertan geran egungo egunean.

Etxeberri'k mintzo ugaria du, baiña ez, bear bada, bear bezain ozena eta zolia. Ozenagoak ere ez zituzkean gure orduko arbasoak iratzarriko, noski, baiña gaur ozenagoa nai genduke. Axular'en ondokoa eta imitatzailea izan zen ura, baiña Axular'en indarrik eta bizitasunik ez zuena. Gure artean beti gertatu oi den bezala, gaiñera, XVII-garren mendeko gizona dirudi —Frantzia'ko XVII-garren mendekoa, alare— eta ez XVIII-garrenekoa.

Zenbait argitasun, izkeraz. Ba dira emen itz batzu ia berak eta (bere ondoren?) Larramendi'k baizik erabiltzen ez dituztenak. Oetarik dituzute *alosis* (“musa” “harmonía”, Larramendi'k dionez) eta *huzkuia*, “senipartea” edo emen. Beste bat, *hausteriza*, ongi aldatua badago, Etxeberrirena da, “autespena, aukerarena” adierazteko, eta orobat *astrugaizki* “moldegaizki, itxura txarrean”.

L. M.

I

Gogoetan nengolarikan egun batez zer perpaus hautatuko nuen gure gazteriarri aiphatzeko, gogora zitzaitan hei gehienik agrada ahal dakioketen gauza dela gerla, zeren jende gazteak, eta berheziki Eskualdunak bere baitharik emanak baitira gudura eta gathazkara, eta nola gaztei eman behar baitzaie hekien disposizioari dagokan enplegua, hargatik nik-ere hautatu dut hei hemen aiphatzeko gerla.

2

Ordea behar bada boztuko dira, ustez ezen gonbidatzen tudala Marteren suzko eta kharrezko joko eta habarrots izigarrietara. Ez, zeren nihork gonbidatu gabe berak baitira hartara asko emanak. Baina deitzen tut, Minervaren dosteta ezti eta kanta-alosien bidez, enorantziaren kontra egiten den gerla ohorezkora, eta bat-bederak batere arriskurik gabe hainitz abantail eder ardiets detzakenera. Hau da gerla eder eta miragarri hura, zeinetan jakintasunak nahi baitu gizona altxatu eta abantaillatu, hala nola enorantziak nahi baitu aurthiki eta ostikatu. Hautxe da, bada, nik aiphatzeko dudan gerla. Halatan, beraz, arrozoin lukete gure gaztek laster egiteko ene deihadar huntara, ezen ezta munduan gizonik jakitea desiratzen eztauenik, zeren guztiok jeneralki baitugu geure baitharikako gutizia bat jakiteko, eta hargatik naturalki penduratzen gara jakintasunera, gure perfezinora bezala.

3

Deabruak-ere, bada, ikhusirik gizonak handirozki desiratzen zuela jakitea, hemendik ekhin zitzaioen Eva gure lehenbiziko ama hari, erraiten zioelarik: *Aperientur oculi vestri, eritis sicut Dii scientes bonum et malum* (1). Izanen zarete Jainkoak bezala; ezagutzen tu-

(1) Gen. 3.

tzuelarikan ona eta gaitza, zuen begiak idekiko eta argituko dira. Jakintasuna eman zioen peitatzat, zeren deabru enganioz eta maliziaz betheak ezagutzen baitzuen jeusez-ere etzezakeala hobekiago engana, zeren guztiok baitugu jakintasunarentzateko gutzia eta desirkundea.

4

Ordea arzoinekin, zerenetariak gizonak munduan ardiets ahal dezaken aberastasunik eta ohorerik handiena baita jakintasuna, zeren Jainkoak gizonari arrozoinamenduan eta gauzen ezagutzan eman baitio bere perfezinoa, non bide hunetaz berezi baitu abre mutuetarik eta egin aingiruen iduritako. Halatan, beraz, erran behar da jakintasuna dela gizonaren perla juiusa eta diamant preziatua, bai halaber adimenduko goibeldurak urmariarazten tuen iguzkia, Godart gizon handi hark dioen bezala:

*Thesauros superat divitis Indiae,  
Et quas Oceanus condit opes sinu  
Veri perpetuis fulgide dotibus  
Maiestas sapientiae.*

Erran baleza bezala: Indietako aberastasun guztiak iragaiten eta xitzen tu jakintasunak, eta oraino Itsaso Ozeanoak-ere bere golkhoan gorderik daduzkanak.

*Nihil ergo solis lumine carius,  
Nihil ergo solis luce venustius,  
Cum sit venustas atque candor,  
Gratia, flos, acies decoris.*

Erran baleza bezala: ezta jakintasunaren argia baino prezagarriagorik, ez ederragorik; guztia da edertasunaz, distiaduraz, garaziaz, lore eta lili ederrez bethea, eta da ohorearen ithurburua. Halako moldez altxatzen eta igaiten da, non enperadoren eta erregen tronuez gorago jarria baitago, autor berak dioen bezala:

*Regum namque thronis celsior eminent,  
Cum sit nobilitas unica principum,  
Quorum tergeminis laudibus efferens  
Nomen perpetuum facit.*

Erregen jar-lekhuez edo tronuez gorago dago jakintasuna, zeina baita printzen noblezia, eta berek-ere hanbat ohoratzen, laudatzen eta prezatzen dutena.

Hargatik hanbat enperadorek eta erregek bethiere erakutsi izatu dute amodio berezi bat jakintasunaren alderat, non, noble sorthu arren, guztiarekin-ere iduritzen baitzitzaien oraino zerbait bere presunetan eskas eta falta zutela zientzien arropaz bezti zitezken artean; hargatik, ongi trabailaturik eta estudiaturik, entseiatu izatu dira jakintasunaren tronura igaitera; hala egin izatu dute hautarik hainitzek, eta bereziki Carlo Magno gure enperadore handi hark eman zuen ezagutzera letrentzat zuen onherizkoa, eta borondate on haren atseginik handiena zen philosophiaz, matematikaz eta poesiaz arrozoinatzea eta ihardukitzea, eta oraino bertze-alde bazeakitzan hainitz hitzkuntza diferent-ere, halako moldez non erran baititeke bere jakintasuna baliatzen zitzaioela bere erresumarako eta bertze gainerako egiteko guztietan, ezen egundaino ezta izan kapitainik hobekiago obeditua izan denik eta bere joan-ethorriak dohatsukiago erabili tuenik, ez eta-ere eztikiago eta prudentkiago bere botherea eta garaitia garaituen alderat erakutsi duenik, eta errespetu gehiagorekin onhetsia eta maitatua izan denik. Ikhusirik, bada, eta ongi frogaturik jakintasunaren eta letren efetuak, ezarri zituen Parisko Unibersitatea, Paviakoa, Boloniakoa eta bertze hainitz lekhutakoak.

## 6

Manera berean dio Lampridiok (2), emperadore Alexandro Severo mintzo delarik, zeina, zelarikan harma-gizon handi bat eta harmetako eginbidetan hain ongi zihoakona, dio guztiarekin-ere zela zientzietara eta letretara hagitz emana, zeren ezagutzen baitzuen jakintasunak eta eskolak gidatzen tuen harmen efetuak zein miragarriak eta diferentak diren eskola gabekoenetarik; hargatik, bada, artha handirekin bilharazten ohi zituela kausi ahal zitezken muthilkorik izpirituz agudoenak eta gairik hoberenak eskoletara eta unibersitatera igortzeko eta berak gastatzeko behar zuten guztia emaiten zerauelarikan, eta hala letren bidez harmez baino etzuela loria gutiago ardietsi.

## 7

Baldin Severo enperadoreak ongi ezagutu izan balitu Eskual-herriko gazten izpiritu habilak eta adimendu haltoak, hanbat abantail eta dohain berezietz dothaturikakoak, eta ezarri eginbide berean, erran

---

(2) Ap. Theatr. vitae humanae.

dezaket ausartki izatu ziratezkela universitatetan eskola-nausi handi eta mundu guztiari hainitz argitasun eman ziotetenak. Eta orai-koek-ere, balute halako esku-emaille bat eta bere herrian halituzte eskolak, bertze jendakiek tuzten bezala, eztut dudarik eman letzaketela bere izpirituko puntaren frogak.

8

Ordea, hunelako laguntza faltaz, hanbat adimendu eder eta gai onak dohakabeki gelditzen dira mendi eta arrokapecan ehortziak, eskoletan enplegatuak izaiteko laguntzarik izan gabez eta eginbide hautara izaiteko biderik ez izanez.

9

Artha bere izatu izan dute hainitz bertze enperadore eta erregueek, esa nihork-ere ez hanbat nola Luis gure errege handiak (zeinaren arima Jainkoak lorian duela) bere erresumetan handirozki eta artha handi-ekin distiarazi diote zientzia eta letra suerte guzietan bere denboran, halako gisaz non erran baitezaket ausartki hau zela zerutik igorri-rikako Apollo.

Hemendik, bada, ikhus zazue eta juia, gure euskaldun gazteak, zein aberatsa eta ohorezkoa den jakintasuna eta eskola, eta zein handiak diren letren merezimenduak: *Pompa meritorum regale iudicium*. Merezimenduen handitasuna. Erregezko juzkua, dio Casiodorok. Eta oraino handik beretik errazki ezagut dezakezue enorantziaren bisaia dohakabe goibelduraz eta ilhuntasunez bethea, zeren haren efetuak osoki kontrariokoak baitira, *Oppositorum opposita est ratio*, filoso-phiako erregela hunen eredura.

Halarikan-ere, osoki satisfatuak geldi zaitezten amoreagatik, oraino nahi narokezue xeheroki erakutsi hala bataren egiazko abantailak nola bertzearen enganio eta lausengu itxurapenezkoak, ezagutzera emaiten darozkitzuedalarikan zein diren gerla hunetan darabiltzaten harmak.

10

Jakintasuna eta enorantzia baliatzen dira bi harma diferentez. Batak darabila nekhea eta trailla, bertseak aisia eta alferkeria: jakintasanak edo zientziak gerla egiten dio enorantziari nekhearen eta traillauren bidez, harma hautaz garaitzen du. Halaber enorantziak-ere aisiaren eta alferkeriaren bidez kontra egiten dio jakintasanari, trabatzen du eta irabazten diotza hainitz izpiritu gai eder, eta batzuetan munduan diren adimendurik haltoenak eta gairik hobere-

nak. Batzuek estudiatu zuketelarikan aisia eta alferkeria dela kausa estudiatu gabez, eta bertzeak estudiatu ondoan halaber aisiari eta alferkeriari bere buruak emanez, eta ikhasi zutena ahantztera utziz. Orai ikhusten duzue beraz, gazteak, gerla hunetan bataren eta bertzearen harmak zein ziren? Orai zuen baithan dago hautatzea, hauterizan zaudete. bietarik bat hauta zazue gerokondoan urrukirik eztukezuen bezala, ezen nolako hauteriza orai egingen baitukezue, hura bera zuen zahartzean hautatua kausituko dukezue.

Ordea, nor ahal dateke adimenduaren kutsua duenik jakintasuna, hain gauza ederra, aberatsa, ohorezkoa, balenta eta merezimenduzkoa utzirik, enorantzia erromes, laidagarri, herbal eta hobenduria hauta dezakenik, ez izaitekotzat zenbait erho, zoro, burutik jauzirik? Badut uste hauterizan gainean guztiok akort garela, zeren guztiok jakintasu-naren gutizios bait-gara.

## II

Ordea, halarikan-ere, zein gutiak diren hunen ardiesteko entseiatu eta travaillatu nahi dutenak. Batzuek gerokotz utzten dute eta bertze batzuek bere fixotasunean fidatzen dira, eta ezta aski izpirituz agudo izaitea eta adimendu haltoa duzula zeure buruari prometatzea, baldin zeure partetik ongi entseiatu studioan enplegatzen ezbazara: estudioko travaillurik gabe ikhasiko duzula gogoan pasatzea da enorantziaren goibeldurarekin argia ez ikhasi nahi izatea. Hargatik erran zuen Hesykhiok enorantziak egiten duela gizonaren adimenduan Jondoni Pauloren begietan harezte edo ezkatek egiten zutena, zeinek, argia trabaturik, bista khentzen baitzioten, Ananiasek ukhiturik eror zekiozkon artean: *Et confestim ceciderunt ab oculis eius tanquam squamae, et visum recepit* (3). Hargatik izpiritu eta adimendu letragabekoak, alferkeriak garaiturik enorant gelditzen direnak, gisa berean deit ditezke begi ezkatatz betheak bezala, zeinak ez baitzaizte eroriko, ez argirik ikhusten utziko, non eztituzten gantzutzen estudioaren travailluaz, zeren hunek xoilki khentzen baititu enorantziaren goibeldurak eta agertzen zientziaren distiadurak. Hau humela egiten eztuzue, erranen dut gogo eta borondate baduzuela estudiatzeko eta ikhasiteko, baina obratzea zaitzuela falta. Halakoak gatik erraiten du Isaias profetak: *Venerunt filii usque ad partum, et virtus non est pariendi* (4). Ethorri ziren erditzeko puntadara, ordea etziren erdi; obratu gabe gelditu ziren. Hauk-ere hartzen dute gogo eta borondate estudiatzeko

(3) Hesyeh. ap. Lang. Tit. de ignor. Act. Apost. 9.

(4) Isai. 37.

eta, ethortzen direnean egin behar duten orenera, gibelatzen dira eta han anhu eta ukho egiten dute, beharreanean faltatzen dute, zeren hartzen duten gogo eta borondate hura ez baita fina, ez zinezkoa eta ez deliberatuki deliberatua. Hauk nahi lukete zientzian parte, ez ordea zientziaren ardiesteko iragan behar diren traillaetan: pagamenduak alegeratzen tu, traillaak tristatzen eta izitzen. Traillutik heldu den irabazia nahi lukete nekerik gabe gozatu; nahi dute ikhan jakintsunen herronkara, ordea nekhatu gabe. Ez atsegirik nahi dute utzi eta ez penarik hartu, herabe dute bideari lotzera. *Piger quasi aeger pedibus* (5). Maingu dira eta oinak dituzte ere, gogo herbal eta flako. Nahikunde franko badute, obratzea zaie xoilki falta: hau gerokotz utzten dute. Finean, erein gabe eta arbola loratu gabe nahi lukete fruitua bildu, halako gisaz non erran baititeke hautaz: *Desideria occidunt pigrum*. Nahikunde eta desirkunde xoiletan urtzen direla.

Ezta ordea hau xoilki heldu haur gaztetarik, baina bai burasoetarik-ere, zeinek asko orduz eta gehienean ez baitiote uzten bere umei estudiatzera adin samurra dela kausa, zeren iduritzen baitzaie estudioak bide gabe eginen dioela hekien naturalezari edo hazbideari, erraiten dutelarik ezen ongi hazirik eta indarrak harturik denborarekin estudiaraziko derauela eta bitartean atsegin hartzera utzi behar direla, eta hala utzten tuzte brida-laxorik, erranak ez aditu iduri gorrarena eginez eta eginak ez ikhusi iduri eginez, eta hemendik, gisa hunetan, lotzen zaie aztura gaixtoaren erhasun langita bat, zeina hatsapenean eta lehenbiziko abiaduran ezti eta arin baita: *Error in principio levis, in fine gravissimus*. Baina gero ondoan, akhabantzan, hagitz pisu eta garratz egitera ethortzen da. Sukhar hektikaren kontua du: lehenbizian badirudi jostetako gauza, jeusere eztela, zeren disimulatzen eta estaltzen baitu bere burua, baina gero, ondoan eta gerorat ja gorphutzean nausitu denean eta bere burua ezagutzera emaiten duenean, egiaz ezta erraz haren sendatzea eta erremediatzea. Zenbatenaz-ere lehenbizian baitzen ezagutzeko gaitzago eta erremediatzeko errazago, hanbatenaz gero gisa berean egiten da ezagutzeko errazago, ordea sendatzeko gaitzago, zeren ordukotzat erroak eta zainak egin baitituzke, eta hala ordinariozki eritasun harekin hiltzen ohi dira hetikoak, lehenbizitik erremediatzeko erraz zen denboran ezagutu faltaz eta denbora zeino erremedioak eman gabez.

(5) Isid. Etym. lib. 2.

Hau bera gerthatzen zaie hainitz burasori: erremedioa eman ahal dezaketenean etzaie iduritzen arriskurik badela, eta ikhusten dutenean arriskua dela eta bere semea galtzera dohatela, erremediorik ezin kausi dezakete; nahi dut egin dezaten egin ahala, bitartean ordea berandu zaie, zeren haurretikako haztura gaixtoa nausitu baita eta eman baitu bere burua ezagutzera, halatan da beldur izaiteko nekez utziko dutela hartu duten plegua. *Adolescens iuxta viam suam, etiam cum senuerit, non recedet ab ea* (6). Spiritu Sainduak erraiten du nor nola gobernatzeko baita gaztean, hala komuntzki egiten ohi dela zahartzean-ere; orduan hartzen duen bidea, plegua eta usantza edukitzen du gerorat-ere, ezta handik higitzen, ez aldaratzen, eta hari datxeko. Halakotz zamaria-ere, gazte deino, hezten da; haragia berri deino gazitzen; zuhaitza ttipi deino birlandatzen: finean, gauza guztiek lehenluzian hartzen dute bere plegua eta, behin hartuz geroz, berant eta nekez uzten dute. *Quo semel est imbuta recens servabit odorem testa diu* (7). Dio Horaziok eltzek berrian hartzen duen usaina edo kutsua edukitzen duela. Hargatik da beraz, burasoen eginbidea haurrak haurdanik haztura onetara gidatzea eta, baldin ttipito danik hazten balituzte behar den maneran, gero handitzen lirenean onhetsia lukete berthutearen haztura. *Filii tibi sunt, erudi illos et curva illos a pueritia eorum* (8). Salomonek erraiten du: semeak ditutzunean, eskola zatzu haurretik, eduki ttipi direino azpitik eta beldurtasunean, zeren behin adinean aitzinatuz geroz eztitutzu errazkiago manukortuko, eskupe-rako eta ez plegatuko.

Ordea, abisu on eta miragarri hau hunela egin gabez, zer gerthatzen da? Hazi eta handitu direnean, atseginetarik lekhora gaitz eta buruz-gora zaie estudioaren nekhea eta trailla; nahiago dute ibili ohitu bezala jostetan, jokotan eta handik arlotekarian, eta gero gelditzen dira alferkeriaren azturan gogortuak eta jeusetako gai ez tiren bezala, nekheak eta trailla iziturik biziotsu eginak. Halakoez erraiten du Iskiribu Sainduak ere: *Statuet haedos a sinistris* (9). Bitinak bezala direla halakoak eta azkeneko egunean ezkerreko aldean

---

(6) Prov. 22.

(7) Horat. Epist. 2.

(8) Eccles. 7.

(9) Matth. 25.



Jainkoak ezarriko dituela. Bitina edo ahuntz-umea, gazte deino, on da jateko, samur, uxter eta sasoa da; ordea gero eta gero doha zailduz, gogortuz eta urrinduz: *Aetas ex haedo asperum facit hircum* (10). Adinak bitinatik egiten du akher urrinduna. Hau bera gertatzen da hainitz haur gaztetan-ere: ttipi direino, malto, manukor, eme eta gozo dira, baina, zeren burasoek bere gutzieren eredura utzi tuzten ibiltzera eta bere nahikunden egitera, adinarekin ethortzen dira muthiritzera, urguillutzera eta errebestera, halako gisaz non hekien baithan ez baita kausitzen bizioaren urthumerik baizen. Halatan erraiten du Job gizon saildu hark: *Ossa eius implebuntur vitii adolescentiae eius, et cum eo in pulvere dormient* (11). Halakoien hezurak betheko dira gaztetasuneko bizioez eta harekin batean lurrean-ere lo-eginen dute, ez tute behin-ere utziko. Zeren Gregorio Sainduak dioen bezala: *Tenent illum pravae consuetudines, quem semel ceperunt, atque quotidie duriores existunt et cum eo in pulvere dormient, quia non nisi cum eius vita finiuntur* (12). Usantza gaitzak eta aztura gaixtoak jarraikitzen ohi dira heriotzeraino eta lurrean barrena sar arteraino, ez tute hararaino uzten eta ez komuntzki han-ere. *Habitus difficile mobilis a subiecto*, zeren haztura gaitz baita erremediatzeko, hala nola baita hektika, zeina (lehen erran dudana bezala) heldu baita berotasun langita bat, denbora luzez, eta aphur bana emeki emeki hezurretan barrena sarthuz: hau da erhasun bat sendatzeko gaitza eta, izaitekotz-ere, xoil luzaro erremedioak galdegiten tuena, Zeren, Khrisostomo Sainduak dioen bezala: *Annosa passio medicamento momentaneo non curatur* (13). Arrazadura aspaldikoa edo narrio zaharkitua ezta pontu batetako mirikuntzaz eta behingo bisitaz erremediatzen, eta ez hain fite eta laster osasuna-ere leheneko estatura eta izaitera bihurtzen. Eta hala haurretikako usantza eta haztura gaixtoa da bizio bat hagitz higuingarria, bat az, zeren den hain gaitza erremediatzeko, eta bertzeaz, zeren berekin baitakarke alferkeria, bizio guztien aitzindaria eta ithurria, eta enorantziaren harrak, Khrisostomo Sainduak dioen bezala: *Omnium vitiorum quasi magistra quaedam atque origo otiositas* (14). Ezta hunc irakasten ez tuten gaixtakeriarik, hau da bizio guztien ama eta hatsapena, eta Spiritu Sainduak-ere hargatik erraiten du Ekklesiastikoaren ahotik: *Multam malitiam docuit otiositas* (15). Hainitz malizia irakatsi duela alferkeriak. Ezta maliziarik ez pentsamendu gaixtorik alferra baithan

(10) Plaut. Epigr. lib. 1.

(11) Iob 20.

(12) Greg. Moral. lib. 15, cap. 15.

(13) Chrisost. 32, tom. 2.

(14) Chrisost. 36, tom. 2.

(15) Eccles. 33.

kausi eztitekenik. Asko da erraitea alferra dela, hartaz edozein-nahi gaixtakeria sinets dezagun, dio Axular zuhurrak.

16

Hau da pozoadura bat pozoin guztien pozoadurak xitzen eta iragaiten tuena, eta bere kutsu madarikatuaz hala gorphutzetan nola arimetan kalte gehiago eragiten duena, eta jentilek-ere handirozki higuin izan dutena. Hargatik dio Platok: *Pestis est mortalibus ignavia* (16). Ezta izurrik, ez eta-ere pozoinik alferkeriak bezanbat kalte egiten duenik. Hau nausitzen dena baithan ezta gauza onik, zeren halakoa-ren gorphutza usteldua eta urrindua baita, eta arima hilla: *Otium sine litteris est vivi hominis sepultura* (17). Senekak erraiten du letra gabeko bizitzea eta jeusik eztakienaren aisia dela gizon biziaren hobia eta thonba. O halakoa hilaren eta ehortzirik dagoenaren pare baita, zeren alferkeriak alferra bizirik dagoela ezartzen baitu ehortzia. Ordea ahal dateke kureltasun bat borthitzagoa eta izigarriagoa nola baita presuna bizirik dagoela ehortzte? Hau da gauza bat den barbarorik salbaienak higuin duena eta naturalezaren lege guztien kontrakoa. Xoilki erran diteke hau dela alferkeriak bere haurrei eta zerbitzariei emaiten derauen emaitza, huzkuia edo primeza: nolako nausia, halako

17

Huni darraiko erromeskeria eta pobrezia, eskean ibiltzea eta bai ohointza-ere. *Pigritia est nutritrix egestatis* (18). Alferkeria da probeziaren unhidea eta haz-ama, dio Senekak, Gauza bera dio halaber Izpiritu Sainduak-ere: *Omnis piger in egestate est* (19). Nagia bethi da behar, eskas eta erromes, zeren esku laxoak eta alferrak probetasuna baitakarke: *Egestatem operata est manus remissa, manus autem fortium divitias parat* (20). Baina esku borthitzak eta trabailariak aberastasunak biltzen tu. *Otiosus Esau amisit primatus benedictionem, quia maluit accipere, quam quaerere* (21). Esau alferrak galdu zuen bere lehentasuna, zeren nahiago izatu zuen hartu, ezen ez bilhatu.

---

(16) De republ.

(17) Senec. Epist. 28.

(18) De benef.

(19) Prov. 21.

(20) Prov. 10.

(21) Ambros. Epist. ad Vercel.

Beraz, dotor saindu hunen arrozoinaren eredura, badirudi alferkeriak berekin dakarken izurriaren kontrako kontrapozoina eta erhasun pozoatuen erremedioa dela bilhatzea, entseiatzea eta traillaatzea, zeren autor berak dioen bezala: *Soli autem homini, ut rationale, quod accipit exerceat, vitae cursus in labore praescribitur* (22). Jainkoak, gizona alfer etzagoen amoreak-gatik eta errezubitu duen adimendua enplega dezan gatik, eman dio traillua: gizonak bere nekhe-izerdiz ardiesten du behar duen guztia eta hura ezten lekhuana ezta dohakabetasunik baizik. *In omni opere bono erit abundantia, ubi autem verba sunt plurima, ibi frequenter egestas* (23). Trailla onean izanen da frankia franko, baina hitz hainitz den lekhuana maiz da eskasia eta probetasuna. Job saindu hark ere dio: *Homo nascitur ad laborem et avis ad volatum* (24). Gizona sortzen da trailla eta hegastina aireko eta hegaldatzeko: hala nola, bada, naturalezaren autorak hegastinari emaiten baitiotza hegalak airatzeko eta hegaldatzeko, manera berean gizonari ere Jainkoak eman diotza adimendua, borondatea eta memoria traillaatzeko. Trailla da zeinaren bidez gizona egiten baita merezimendutsu, hala Jainkoaren aitzinean nola munduarenean. Erraiten ghi da: *Laboribus omnia Dii vendunt*.

Egia handi hau klarki erakusten darokute munduko gauza guztiak, zeinek enplegatzen baitute bere denbora zertako-ere eginak baitira, eta hartan; guztiak baituzte bere enpleguak, zeinek bere graduana, eta hartan denborarik galdu gabe enplegatzen dira eta bere entseiuak egiten tuzte. Hargatik erle ezti egiten traillaatzen direnek, dio Pliniok, traillaatzen ez tiren alferrak eta nagia ezten-kolpeka egozten tuzte bere kofauetarik eta konpainiatik: *Expellunt ab alvearibus pigras*. Eta hala Espiritu Sainduak igortzen gaitu animalia ttipitto batengana, erraiten derokularikan: *Vade ad formicam, o piger, et considera vias eius et disce sapientiam, quae, cum non habeat ducem nec praeceptorem, parat in aestate cibum sibi* (25). Zoaz, nagia, xinhaurria gana eta konsidera zatzu haren bideak eta joan-ethorriak, eta ikhusiko duzu zuk-ere nola behar duzun aitzinerat, ethorkizunean eta bethiere, bizi eta gobernatu:

---

(22) Ambros. in Praefat. in Levit.

(23) Prov. 14.

(24) Iob 5.

(25) Prov. 6, 6.

erakuslerik eta gidaririk gabe, berak bere buruz biltzen du udan negua-  
ren iragaiteko behar duen mantenua eta bazka.

*Gloriam et honorem imperiumque boni  
Et ignavi sibi aequè exoptant (26).*

20

Baldin Eskual-hèrriko gaztek ongi har balezate gogoan Espiritu Sainduaren abisu miragarri hau eta ausnar egin balezate erlen eta xinhaulurien exenpluen gainean, daritzat, bere gaztetasuneko denbora ongi enplegatuturik, entseia litezkela aitzinerat, ethorkinean eta bethiere, zahartasunaren dohatsuki iragaiteko behar lituzketen eginbiden egitera eta bide hartaz esperantza nuke egiatan athera nentzaketela. Halatan behar da trailla eta trailluaren bidez merezitu, ezen ikhus zazu gure Jainko jaunak Adam, lehenbiziko gure aita hura, lurreko parabisuan, plazerez eta atseginez betherikako hartan, ezarri zuelarikan, guztiarekin-ere nola manatu zuen trailla zedila eta begira zezala parabisu hura: *Posuit eum in paradiso voluptatis, ut operaretur et custodiret illum (27).*

21

Ordea erranen duzu, Aita Adamek zuenaz geroztikan behar zuen guztia, zergatik edo zertako trailla zentz. Zeren filosofoen arteko errefina baita: *Entia non sunt multiplicanda sine necessitate.* Gauzak eztira multzutu eta berretu behar mengoarik eta premiarik gabe, eta hala badirudi, jeusen behar etzenaz geroz, hazegokela geldirik.

22

Arrozoin hunen gainean Khrisostomo Sainduak ihardesten du ederki: *Nihil boni facere hoc ipsum est malum facere (28).* Ongirik ez egitea bera da gaizki egitea, aski da alfer izaita gaizkin izaiteko, Katonek dioen bezala: *Homines nihil agendo male agere discunt.* Ez jeus egiteaz beraz ikhasten da gaizki egiten, zeren *otiositas est mater nugarum, noverca virtutum (29).* Alfertasuna baita aztura gaixtoa

---

(26) Sall.

(27) Gen. 2.

(28) Chrisost. 16, 2.

(29) Bernard. lib. de consideratione, cap. 11.

ama eta berthuten ugaz-ama, halatan bizio suerte guztiek laster egiten dute haren gerizara, zeren ama baitute, baina berthuteak eta obra onek ihes, zeren baitakite eztuketela harenganik begitarterik eta ez ongi ethorririk. Halatan, beraz, bat-bedera da obligatu nahiz ttipia, nahiz handia, nahiz probea, nahiz aberatsa, nekhearen eta traillauren onhestera eta besarkatzera, bide hunetaz alferkeriaren latxio eta segada guztiei ihes egiteko, eta bereziki haur gazteak, zeinak enplegu gabez eta traillaatu faltaz errazkiago ethortzen baitira alferkeriaren lausengu higuin eta itxurapenezkoetan erortzera, eta handik bizietsu eta gizon gaixto egitera. Zeren alferkeriak bere bazka gaztetasunean kausitzen baitu; han hazten, gurentzen eta bazkatzen da. Hala nola suaren bazka baita olio, manera berean alferkeriarena da gaztetasuna.

Hargatik, Lazedemoniarrek irabazi zutenean bere frontierako hiri etsai eta mugakide bat, erran zuten Lazedemoniako aitzin-gidariak: *Sublata est pubis nostrae palaestra, non habebunt post hoc quibuscum luctentur adversarios* (30). Egin da gure jende gazteaz, hemendik harat eztute izanen ihardukitzeko paradarik eta ez gathazkatzeko etsairik-ere.

23

Ordea Lazedemoniar hek berek etzuten desegin nahi izatu bertze hiri kontrast bat, bethiere bere kontra eta etsai izan zutena, erraiten zutelarikan hiri hura zela *iuventutis cotem*, gazteriaren zorrotz-harria; zeren gaztek han bere indarrak eta antzea frogatzen, zorrotzen eta alferkeriaren herdoilletik begiratzen baitzuten bere burua. Hunen arauaz ihardetsi zuen Kleomenes Sparziako hark ere, galdegin ziotenean ca zergatik hala bere meneraz gero etzituen bere etsai Arjiboak desegin: *Ut habeamus, qui iuventutem nostram exerceat*. Eztitut desegin, dugun amoreak gatik nork gure jende gaztea zertako den froga dezan. Hargatik, bada, nik-ere obra hau egin nahi izatu dut *iuventutis cotem*, gure gazteriaren zorrotz-harritzat bezala, ustez ezen agian hemen bere indarrak eta antzea frogaturik hainitz fagore eta laguntza munduari emaiten diotzatela eta egun batez, bere traillaun pagua eta errekonpentsa errebitzen duketenean, niri-ere eskerrak emanen darozkidatela.

24

Hauk nituen, ene haur gazte bihotzekoak, zuei erraiteko nituen gauzak. Eta, baldin ene obra hunetan khausi badadi zuen progotxuko gauzarik, gauza bat xoilki galdegiten darotzuet ene errekonpentsatzat,

(30) Plutar. in Apopothegm.

zeina zuen baithan ardietsiko dudala esperantza baitut, jakiteko: nork-ere gutizia izanen baitukezue liburutto hunen ikhasteko, arren lehenik zeuen bihotzetan errezibi detzatzuen orai aiphatzera daramatzadan bi mezu hauk, zeinak gizonaren ongi bizitzeko baitira hagitz progotxosak.

*Pura mente colendus Deus* (31).

*Hoc quicumque cupis carmen cognoscere lector,  
Instrue praeceptis animum, nec discere cesses,  
Nam sine doctrina vita est quasi mortis imago.  
Commoda multa feres, sin autem spreveris illud,  
Non me scriptorem, sed te neglexeris ipse* (32).

Erran nahi du zareten jainkotiar eta estudiora emanak, lehenik galdegiten tutzuelarikan Jainkoaren laguntzak, zeinak gabe nihor ezin heda baititeke zuhurtziako kadirara, zeren zuhurtziaren hatsapena baita Jainkoaren beldurtasuna: *Initium sapientiae timor Domini*. Egiazki, gizonen arteko jakintasuun eta zuhurtziaren ithurri ezin agortuzko hartarik dakharkete bere ethorkia gizonen usaiakotzat, handikan behar da jautsi ontasun guztien lehen hatsapena, zeren handik beretik heldu baitira gauza on eta zuzen guztiak. Halatan nihor ezin diteke dohatsu, non ezturen hartzen zuhurtziaren bidea, zeren zuhur izaitea baita dohatsutasunaren lehenbiziko partea.

Eta gero huni darraika estudioa: hautaz baliatzen zaretelarikan, ardietsiko tutzue zuen izpirituetao janhari hagitz ezti eta zaphoretuak, bethiereko omena, egiazko loriaren garaitia, errekonpentsa beregainekoa, aberastasun eta ohore franko, loria eta laudorio bereziak. Ezta gauzarik hauk baino nobleagorik, ederragorik ez eta-ere maitagarriagorik. Hauk dira zeruko alosiaren iduria edo imajiña ezagutzera emaiten darokun txirribika edo suntsuna, beti gure fagoratzeko eta laguntzeko prest dagoena. Tutzuen, beraz, maite hala nola zeuen bizia, eztadin izan munduan hain gauza gaitzik edo borthitzik hauk zuen gogoan eta izpirituan iraungi ahal detzakenik, aitzitik haukintzateko amodioa biz zuen bihotzetako diamant preziatua, herioak baizik jesus-ek-ere ezin khien dezaken bezala.

---

(31) Caton, distich. lib. 1.

(32) Caton. lib. 3, exord.

Ordea, baldin eskolatako harmen bidez nahi baduzue zuen bethiereko omena hedarazi, jakin zazue zuen eginbidea dela estudioan behar bezala enplegatzea, egiazko garaitiaren ardiesteko; errekonpentsa berezi bat nahi baduzue ardietsi, letren haziak erain zatzue, zeren estudioko arbolatik bilduko baituzue bethiereko omenaren fruitua. Baldin gutizios bazarete loriaz aberasteko, eskoletako urre meatzetan enplega eta travailla zaitetzte. Baldin desiros bazarete ohorearen zelai eder eta zabaletan pasaietan ibiltzera, har zazue estudioaren karrosa. Baldin nihor kausitzen bada zuen artean estimuaren egartsuaz sekeriatua dagoenik, laster egin beza eskolako ithurrira: handik atherako tu egiazko estimuaren usin hondargabeak, chirripa eta hibai usintsuak. Nai duzue laudorioen portura hedatu? Sar zaitetzte autoren untzian edo fragatan. Nahi diozue thiratu zuhurtziaren xedeari? Banda zazue Apoloren balazta. Baldin erreputazino onaren dorrea ezartzera gutiziatzen bazarete, fintka zatzue liburutako zimenduak. Baldinetariak errepausuaren eta soseguaren kopetara ikhiteko gogoia baduzue, travailluaren zurubiak hurbil zatzue. Baldin bethiereko aiphamenaren itxura eta figura nahi baduzue pintatu, har zatzue eskoletako koloreak, tintak eta pintzela. Nahi duzue khoroa eder bat? Orrazta zazue izpiritua Minervaren orrazeaz, adatsa izur eta kroskoilla pinta, eta ungentuz gantzu.

Ordea etzaitetzela izi ez flaka, bethi duzuen bihotza on, altxatzen duzuelarikan eta atzartzen zuen adimendua, zareten bethi fermu, handik Jainkoaren loriakotzat eta munduaren progotxukotzat jakintasunen eta dotoren herronkan ezarriak izan zaitzentzat. Eta hau izanena enetzat ahal dateken errekonpentsarik handiena eta guztien gainetik neure bihotzean estimatuko dudana. Jainkoak hala nahi duela.

